

**OSATEK S.A.-RAKO ZERBITZU OROKORRETAKO BURUAREN LANPOSTU BAT BETETZEKO PROZESUA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK ONARTU ETA DEIALDIA EGITEKO BAIMENA EMATEN DUEN XEDAPENA.**

Osatek Eusko Jaurlaritzako sozietate publiko bat da, ekainaren 9ko 159/1992 Dekretuaren bidez sortua. Bere estatutuen 1. artikulua xedatzen duenez, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 24.6 artikuluan ezarritakoa betetzeko, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, organo autonomoen eta haren mendeko beste erakunde publikoen bitarteko instrumental propioaren eta zerbitzu teknikoaren izaera du.

Aipatutako Estatutuen 3. artikulua xedatzen du haren helburu soziala, beste hainbaten artean, euskal osasun- eta gizarte-sistemari laguntza-zerbitzuak ematea izango dela, bereziki izaera korporatiboa dutenak edo goi-mailako teknologiako prozedurak aplikatzea eskatzen dutenean.

Horregatik, eman dizkidaten eskumenen arabera, eta Enpresa Batzordeari entzunda

**EBAZTEN DUT**

**Lehena.-** Osatek SA-rako zerbitzu orokorretako buruaren lanpostu bat betetzeko prozesua arautzen duen deialdia baimentzea.

**Bigarrena.-** Lanpostu hori betetzeko oinarriak onartzea, xedapen honen eranskin bezala.